

# *ttipi-ttapa*

1992.eko Abenduak 10

99. zenbakia

dohain banatzen da

## **KIWI-BAZTAN: Urtetik urtera emaitza hobeak**





# ARGIA

## egutegia

ESKURATU NAHI BADUZU, **TTIPI-TTAPA** ALDIZKARIA-REN BULEGOAN AURKITUKO DUZU SALGAI

- ❖ Takoan joanen da
- ❖ Santutegia (euskarazkoa eta bestelakoa), ilargi, itsaso eta eguzkiaren datuak, txisteak, errezetak...
- ❖ Erosle bakoitzari egutegia zintzilikatzeko taulatxoak oparituko zaio

BERTZENAZ, DEITU **TTIPI-TTAPAREN** 631188 Tfnora

**IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTU DA.**

**ZUREA ERE SARTUKO DA  
PUBLIZITATERAKO  
ttipi-ttapa AUKERATUZ GERO.**

# non - zer

- 
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/24** **HERRIZ HERRI**  
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 
- 25** **KIROLAK:** Bortziriak Futbol Taldea: Futbola emakumezkoen kirola denean  
Aitor Arozena
- 
- 26** **ERREPORTAIA:** Eskualdean 250.000 kilo kiwi biltzea espero da.  
Aitor Arozena
- 
- 28** **ELKARRIZKETA:** Santiago Ustarroz: «gestio mailan inefikazia haundia dago gaur egun Baztango Udalean».  
Joxemanuel Irigoien
- 
- 30** **MERKATU TTIKIA**
- 

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 5.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Juana Mari, Olhain Elkarte, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

## Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza .....510248/510573

**KONTSULTAK**

Arizkun ..... 453039

Gartzain ..... 580451

Oronotz-Mugaire ..... 592024

Ituren ..... 450183

Sunbilla ..... 450283

Goizueta ..... 514067

Igantzi ..... 637755

Arantza ..... 634131

Bera..... 630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun ..... 630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea ..... 614600

Nafarroako ospitalea ..... 102100

SSko urgentzi zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino  
erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz ..... 450242/450342

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak)..... 171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404

Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire ..... 592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra ..... 630279

Baztanesa ..... 580129

Leitzarar ..... 515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo ..... 580730

Lesaka ..... 637154

Bera ..... 630261

**ABERIAK:**

Iberduero ..... 450335/450336

## W Botikak

► **Abenduaren 12-13an**, Etxalar, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Abenduaren 19-20an**, Bera, Ituren eta F. Elizalde (Elizondo).

► **Abenduaren 24-25ean**, Lesaka, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

## W Bertsoak

► **BERA**  
Abenduaren 20an, arratsaldeko 4etan Kultur Etxean, Lizaso, Egaña, Mendizabal eta Estitxu Arozena.

## W Deialdiak

► **IGANTZI**, abenduaren 11an Euskara Batzordearen bilera.

► **LESAKA**, abenduaren 11an, Euskara batzordearen bilera.

► **BERA**, abenduaren 15ean, Euskara batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, abenduaren 23an, Euskara batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, abenduaren 17an, Euskara Mankomunitatearen aholkularitza batzordearen bilera.

## W Musika

► **LESAKA**  
Abenduaren 12an, rock kontzertua Atxaspi ostatuan, *EHUN KILO* taldearekin.


## W Dantzaldiak

► **LESAKA**  
Abenduaren 13an, *ARKAITZ* taldearekin.  
Abenduaren 20an, *TTURRUTTA* taldearekin.

## W Antzerkiak

► **ELIZONDO**  
Abenduaren 11an, Círculo de la Unión-en *INFRAGANTI*. 9.30etan.

## W Bota bertsoa



### Xabier ERKIZIA

(Bortzirietako Bertso Eskola)

**Gaia:** Santiago Irigoien txistularia

**Doinua:** Eskeini asko eta eman gutxi

Bizi osoa nahiz pasa duen hainbat lan eta arazoz beti aurrera begiratu du arrakasta nahiz frakasoz eta oraindik nekatu gabe giroa berotu asmoz Euskal Herria eta Lesaka doinu alai eta goxoz.

Ezpain artean txistua eta eskubiaz tanborila ez da munduan soinua jotzen zu zeran bezain abila arro egoteko arrazoi aunitz baina hala ere umila honegatikan gure partetik Santiago eskermila.

# AGENDA

## Ekitaldiak

### ▶ ETXALAR

Abenduaren 11an, 7etan Koldo Amestoy helduendako ipuin kontalaria, eskola zaharretan.

Abenduaren 18an, diapostiba emanaldia, Everestera igoera, Iñurategi anaiak emana.

## Zinema

### ▶ DONEZTEBE

Abenduaren 12-13an, "Gladiator". Abenduaren 19-20an, "Una mujer bajo la lluvia". Abenduaren 25ean "Hook".

### ▶ LEITZA

Abenduaren 11an 10,30etan eta Abenduaren 13an 8etan, "El cabo del miedo". 13an 5etan "Beethoven". Abenduaren 18an 10,30etan eta 20an 8etan "Bugsy", Abenduaren 20an 5etan, "Todos los perros van al cielo".

## Gastronomia

### TXIRLAK SPAGHETIEKIN

#### Osagaiak 4 lagunendako:

Txirlak, spaghettiak, olioak, baratxuriak, ogirina, ardo xuria, perrexila, ura eta gatza.

Alde batetik spaghettiak erosi ur gatzatuan, dastatuz egin arte. Bertze aldetik, lurrezko kazuela



Jose Emilio Txoperena  
'Soltxan'ek emana - LESAKA

batetan jarri olio pixar bat berotzen eta baratxuria

puskatua frejitu. Baratxuria egina dagoenean goilarakada bat ogirina bota eta nahasi, gero ardo xuria eta uraz saltsa osatuz; saltsa honetara txirlak -lehen uretan edukiko ditugu garbitzeko- bota ireki arte. Txirlak ireki ondoren perrexila xehe-xehe egina bota, eta azkenik spaghettiak -ura kenduta- lurrezko kazuelara eta txirlekin ongi nahasi.

## Baserriko feria

### ▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.860 pzta. Zerri gizona (95-100):141 pzta/kilo Zerramak: 80-90 pzta./kilo bizirik.

### ▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal  
Extra.....525  
1.koa.....500  
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal  
Extra.....535  
1.koa.....510  
2.koa.....480  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak  
(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.  
Mestizoak: urruxak 23.000 eta idixkoak 33.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.


«La Suiza» Aseguro mota guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

## 11 galdera ilabur



### J. Antonio Elizondo "Ezkalo"

Doneztebeko komertziantea

- ▶ **Turismoa ala industria?** Biak, turismoa udarako eta urte osorako kontaminatuko ez duen industria.
- ▶ **Ingurugiroa lehenengo gauza?** Mendiak garbi eduki eta ez zaborra erre.
- ▶ **Ikasketak dituen jendea ala gabe-koa?** Ikasketaduna.
- ▶ **Etxe berrituak ala zaharrak?** Zaharrak, norberak bere gustora moldatzeko.
- ▶ **Komunikazioa ala inkomunikazioa?** Komunikazioa, hemengo jendea bakarrik sentitzen da.
- ▶ **Teatroa ala telebista?** Teatroa biziagoa da.
- ▶ **Euskara beharrezkoa da?** Bai, identifikatzeko era bat da.
- ▶ **Dagoen kultur eskeintza ona da?** Oso txarra, instalazioak hilik daude.
- ▶ **Kultur proposamen bat?** Herrien arteko abesbatza bat.
- ▶ **Infrastruktura ona ala txarra?** Txarra, baserriak inkomunikatuak daude.
- ▶ **Etxeak merke ala garesti daude?** Gazteentzat oso garesti.

### ▶ Luna de hiel Roman Polanski 1992

Amodiaren gazi-gozo-garratztasunak agertzen dira Roman Polanskiren azken lanean. Itsasontziz Oriente aldera bidaia bat egitera abiatzen den bikote zoriontsua (Nigeleta Fiona), bertze bikote berezi bat aurkituko du bertan (Oskar eta Mimi). Azken hauen arteko amodio harreman berezia (sodomakismoa, sexua...) kontatzen dio Oskarrek Nigeleri eta honi Mimirekiko sexu grina piztuko zaio. Ikuslea bera, Nigelekin identifikatuko da

## Zinema



Emmanuelle Seigner.

Emmanuelle Seigner, Peter Coyote eta Hugh Grant dira filmeko aktore nagusiak

Polanskiren jo-koari esker.

Ordura arteko bere harremanen zorientasuna eta zazpi urtetako ezkondu bizitza dudatan jarriko du Nigelek, bertze bikotearen

harremanen gora-beherak ikusirik.

Filme osoan zehar, jakinminaren sentsazioa nabari ahal dugu; etengabe zer gertatuko den jakin nahian, on-

doren zer pasatuko den igerriko dugulakoan, baina ezustez betetako filma da honako hau, hasieratik bukaera bitarte.

JOXE

**CLAAS S. Semper**



**SAME**

**Nekazal Tresneria**

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean

**TXOKO erretegia**

**Bazkari, afari eta gosariak**

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

**ZIZKA OSTATUA**

**Martxa eta mozkor saltsa**  
Altzate 28 - BERA



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA  
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA  
KULTUR ETXEETAKO  
LIBURUTEGIAK OSATZEKO  
BEHAR DIREN BILDUMAK

**AMETS LIBURUAK**

☎ 63 12 67 - BERA

*Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak  
eta Jubilatuen elkarteak antolatua*

## Adinekoen osasun eta denbora libreari buruzko ihardunaldiak

Berako Kultur Etxean gai honi buruzko zenbait hitzaldira izanen dira. Hilaren 14ean, arratsaldeko 6etan, Iñaki Arrizabalaga psikologoa "Hirugarren adineko giza garapenari buruzko perspektibak" gaiaz arituko da euskaraz. Hilaren 15ean, arratsaldeko 6etan, "Asti librea"


izenburua daraman hitzaldira emanen du gazteleraz Carmen Izal psikologak. 16ean, azkenik, "Osasuna eta higieena" eta "Ohitura osasungarriak" izanen dira jorratutako gaiak. Hizlariak berriz, Maite Urkia eta Carlos Bolea izanen dira, lehenengoa euskaraz eta bigarrena erdaraz.



**Zonaldeko** artisauek beraien eskulanak erakusteko debaldeko eskaparate ederra izanen dute hemendik aintzineria Donamariako Bentan. Erakustoki iraunkor bat eskeini nahi zaie, modu honetara, bertako eskulangileei.

## Bortzirietako feriak giro ederrean igaro ziren Lesakan

*Gutzira 61azienda aurkeztu ziren lehiaketara,  
azken urteotako kopururik haundiena*



Eguraldi ederra probextuz jende ugari bildu zen Bortzirietako feria egunean Lesakara. Azienda lehiaketara 61 buru presentatu ziren.

Zaltabereetan, 36 zaldikoen artean Jose Antonio Anduezak eraman zuen lehen saria. Betabereetan 20 abere presentatu ziren eta holandesa arrazakoetan Biurgarai baserriko Salvador Goiak es-

kuratu zuen sari nagusia. Suizetan, Gilenbordako Gabriel Alzugaraiek eraman zituen lehendabiziko sariko 30.000 pezetak. Haragitako behietan, Berreu baserriko Juan Jose Prietok lortu zuen lehen saria, baita hobekien aurkeztutako aziendari emandako plaka. Aharetan, azkenik, lehen saria Gilenbordako Javier Alzugaraientzat izan zen.

### INFORMAZIOA:

- ☞ Nominak
- ☞ Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratu bonifikatuak
- ☞ Enpresa berrien sortzea
- ☞ Diru-laguntzak
- ☞ Errenta Deklarazioak
- ☞ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## ABERTZALE ERDAL ZALEAK

Lesakako EAJko zuzendariari: Harriturik gelditu nintzen Lesakako batzokiak bidaltzen duen orriarekin. Dena erdara hutsean. Non gaude jaunak edo nora goaz jokabide horrekin?

Alderdi batentzat benetan lotsagarria da abertzale izanik hainbeste lan hainbeste nahigabe ikastolak eta euskera aurrera eramateko. Eta gero zer, euskararik gabeko Euskal Herria nahi al duzue? Ez, Lesakan euskera behar degu.

Ea bada hurrengo orria euskaraz ikusten degun.



J. L.  
15.070.765

## BERAKO ZUHAITZAK PODATZEN

Urtero bezala, aurten ere Berako udalak zuhaitzak podatzeari ekin dio.

Eztegara pasealekuko ez gain Ansoenea jatetxearen atarian dauden bi platanok ere podatu ditu, eta nola podatu gainera! erdi erditik moztu dituzte eta.

Horren aurrean horrela moztearen arrazoiak eskatzen dizkiogu Udalari eta

aurrerantzean zuhaitzak podatzeko honetan dihardutenak jarri ditzala, edo daudenak ongi egiten ikasi dezatela.

Lehen eta azkenengo biak izango direlakoan.



Berako Ekologistak

## PRESO ETA ERREFUXIATUAK GOGORATZEN

Berriz ere Eguberrietara hurbiltzen gera eta denok dakigun bezala denok dakigun arrazoiengatik, batzuk ezin izanen dituzte gure artean pasatu. Komunikabide guztiak

maite ditugun pertsonak gogorazten diguten egunotan, ezin ditugu Joxelu, Fermin eta Mikel Kapullo ahanzi. Honela instituzioek gure berotasun eta elkartasunarengatik urrunarazteko duten interes mugagabeak berriz ere frakasatuko du. Honegatik, egun hauetan idazteko animatzen dizuegu eta gogoratu Gestoren eltxetxuetan egun

hauetan jasoko den dirua gure olentzeroa bidaltzeko erabiliko da.

*Fermin Anzizar  
Apdo. 476, Centro  
Penitenciario de  
Cumplimiento-Alicante*

*Jose Luis Etxeberria  
C.P. Monterroso  
27560 Lugo*



Bortzirietako Amnistia-  
ren aldeko Batzordeak

## Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan  
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE  
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

# OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



## MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40  
BERA

## EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



### Su-hiltzaileen ikastaroa larunbatetan burutzen ari da

Klase teoriko-praktiko hauetan, 34 Beratarrek parte hartuko dute

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Azaroaren 21ean eman zitzaion hasiera hamar aste bukaeratan luzatuko den ikastaroari. Larunbatero, goizeko 10etatik 1ak arte, klase teoriko-praktikoak emanen dira Berako Su-hiltzaileen Parkean, eta horretarako, 'Bomberos de Navarra' koak diren bi su-hiltzaile profesional etorriko dira monitore gisa. Nolanahiko suteak itzaltzeko behar diren gutxieneko ezagupenetaz gain, erreskate zereginetan ere trebatzen saiatuko dira (kotxe istripuak, mendian bilaketak etabar). Lehenengo larunbatean guziguziak bildu ez baziren ere, 34 bederen badira ikastaroan parte hartzeko izena eman dutenak. Aipatu baita, 'etxeko su-istripuak' izeneko bertze ikastaro bat antolatu nahian dabiltzala etxekoandreentzat.



Luze gabe, Berako suhiltzaileen parkea bigarren kamioi-zisternaz hornitzea espero da

□ 'Agerra Mendi Elkarte' sortu da berriki eta bere egoitza Agerran kokatu du, lehen Zubieta Ostatu zen bajaran, ahin zuzen ere. Honez gero 78 sozio ditu eta markatutako helburuen artean asti-librea lantzea, kirola bultzatzea, kultura eta gastronomia agertu ditu bertzeak bertze. Junta direktiba honako

hauek osatzen dute: Angel Garcia de Dios, Jabier Telletxea, Antonio Zubieta, Agustin Olaziregi, Jose Antonio Sainz, Antonio Eskudero, Jose Ramon Iglesias, Imanol Larrañaga eta Txaro Zubieta.

□ **Rikardo** Baroja ikastetxeko Eskola Kontseilua berri dela eta, Udaltzatzak zera erabaki


du: orainarte bezala, hemendik aintzina ere Jose Luis Urtxegi kontzejala izendatzea Udalaren ordezkaria Kontseilu horretan.

□ **Itoitzeko** urtegiari buruz solasteko, hilabate honen 11 ortziraletan, bilerak bat burutuko da Gure Txokoa Elkartearen arratsaldetako 7etan.



Legia 11 - 63 06 64 BERA

**BOAN TAILERRA**



KOTXE BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
Herriko Etxeko Plaza - BERA

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA  
OPARIAK  
BURDIN TRESNERIA  
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



**KIROLAK ZELA**

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98  
BERA



\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

\* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

LESAKA

Santiago Irigoien txistularia omenduko dute abenduaren 13an garai guzietako ikasleek



*Ikasleek inguraturik egon da Santiago Irigoien, batez ere azken hogelabi urteetan. Argazkia duela 6-7 urte ingurukoa da. Ezagutzen dituzue?*

Artxibo

W ttipi-flash

- **Beti Gazte** elkarteak antolatu zuen argazki lehiaketaren irabazlea, Benito Cantero bergaratarra suertatu da, "Ipisti" izeneko argazkiarekin. Bigarren saria, Valentin Abuin lesakarrak eskuratu zuen eta kirol argazki onenaren saria, Josu Inziarte mugairearrak eraman zuen. Guztira Euskal Herria osotik 76 argazki aurkeztu ziren.
- **Kirol zonaldea** egiten aurreneko dirak, Nafarroako gobernutik 45 milioitako subentzioa jaso ahal izateko. Lehen fasean piszinak eta aldagelak egiten dituzte, bigarren fasean futbol zelaiak eta hirugarrenean polikiroldegia.
- **Odol ematea** izanen da abenduaren 17an goizean. Urtero egiten den luntxa hilaren 20ean egiten da Arkupen. Odol emate berria izan nahi baduzu, 637136 tfnora deitu (Eukene).

AITOR AROZENA

Santiago Irigoien 79 urtetako txistularia omenduko dute hilaren 13an bere ikasle eta ikasle-ohiek. Gerra bukatu ondoren hasi bazen ere irakasle lanetan, azken 22 urteotan aritu da Santiago, buru-belarri lan horretan. Denbora honetan, ehun ikasletik goiti izan ditu eta gehienak omenaldian parte hartzeko borondatea agertu dute.

Santiago jasoko duen laugarren omenaldia izanen da, baina berak aitortu duenez, honek ilusio berezia egiten dio.

Egitarauari dagokionez, goizetik hasita txistularien dianaren ondoren Santiagoren bila joanen dira bere etxera. Abesbatzak kantatuko duen meza bukatuta, txistulariak, dantzariak eta bertsolariak eta bazkari herrikoia izanen dira.



KARMELE

*Hamabi urterekin udal txistulari bezala hasi zenetik, makina bat ordu pasatuak ditu Santiagok txistua jotzen eta erakusten*

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
 Bitirria LESAKA

Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza  
 Bitirria, Tfnoa: 62 75 42  
**LESAKA**

**IRUBIDE**  
 OSTATUA  
 ERRETEGIA  
 Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

**XATURETXEA**  
 FONDA  
 Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

★ **KIXKUR** ★  
 ILEAPAINDEGIA  
 Bitirria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

**EROSLE**  
 LESAKA  
 Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
 zugandik hurbilago  
 Bitirria 67 - Tfnoa:637264

## Euskara jakitea beharrezkoa izatea eskatu du Udalak

Nafarroako Gobernuak euskal eremurako antolatzen dituen lanpostuetarako

PELLO APEZETXEA

Euskal eremurako Gobernuak antolatzen dituen lanpostuetarako, euskara jakitea nahiaezko baldintza izan dadila eskatu du Udalak, ingurukoekin batera. Zuzenbidez hori eskatu beharrik ere ez zen, Gobernuak berak egindako legea bete izan balu; Euskararen Legeak dioenez, herritarrok Herrikoetxe eta Gobernu Zerbitzuekin euskaraz aritzeko eskubidea dugu. Hori, ordea, ezinezko bilakatzen da, enplegatuek euskaraz ez badakite.

### Zentralak langilerik gabe

Automatizatu dituzte-



Gaur lanpetuak eta prisaka bizi garen honetan, patxadaz elkar ikusi, elkarren berri eman, elkarrekin egotea on dela gogoratzea ez dago gaizki.

nez, zentralek ez dute inoren beharrik argi indarra produzitzeko. Aberiaren bat gertatzen bada, hura konpontzea dute egitekoa

orain arte zentraletan egon direnek. Edota urrungo zentraletan lan egin. Lan moduak eta orduak aunitz aldatu zaizkie.

### Behiak eta ahuntzak ez dituzte menditik erretirutzen

Debekua behin baino gehiagotan adierazi bada ere, animalia horietakoak badabilta orain ere, landareetan kalte eginez. Ja-beek biltzen ez badituzte, Udalak bilduko omen ditu.

☐ **Energia Hidroelctrica de Navarra** enpresa Udalaren baimenik gabe ari da kanaletako obratan, eta bide berriak irekiz. Kexa ugari da, gainera, bideak hondatzen eta animaliak galtzen ari direlako lan horien ondorioz. Baimenak lortu arte lana gelditu dezan agindu dio Udalak, bideratzen den.

### ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79  
Bittiria karrika - LESAKA

### EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547  
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA




Ganaduarentzat pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR

### ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

### KOXXKONTA



Sagardotegia  
Erretegia

Ezkontza,  
bataio, bileratarako  
leku egokia  
(200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

### KOSKILLA

OSTATUA

Larunbatetan  
mus txapelketak  
sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA

IGANTZI

Hamalau herritar gimnasia egitera biltzen dira astean bitan

Hilabete honetan egin beharko da azinda deklarazioa

OSKAR TXOPERENA

Hilabete inguru daramate, astearte eta ortzegunetan gimnasia egiten hamalau herritarrek. Hogeita berrogei urte tartean daude parte hartzen dutenak. Hasiara batean hamar lagun apuntatu baziren ere, orain kopurua gorantza doaie. Animo!

**ETBko antena berria**

Hasiak dira paratzen Frain-en ETBko antena berria. Isilean eraman badira ere, aspalditik omen ziren elkarrizketak ETBko programazioa ofizialki hemen ikusi ahal izateko. ETBko bi kateak Igantzinazken aldi honetan nahiko

ongi ikusten badira ere, bazen ordua zerbait iraunkorragoa egiteko.

**Azinden deklarazioa**

Bi egun markatu ditu udalak azinden deklarazioa egiteko. Horretarako pasatu beharko duzue Herriko Etxetik abenduaren 16an eta 19an. Orduan, azindak dituzuenak faltarik gabe pasa zaitezte.

**Baratzondo erosteko laguntza eskatu**

Piszina eta Zaharren Etxea egiteko erosi berria den Baratzondoko zelaia ordaintzeko, laguntza eskaera egin zaio Herriko Etxetik Nafarroako Gobernari.



Argazki zaharrak biltzen ari da Biltokiko Junta, ondotik erakusketa egiteko. Beraz, zokoratuta eta hautsaz beteta dauzkazuenak, atera kanpora jendeak ikus ahal ditzan. Hementxe duzue adibide bat, 1958 inguruan Herriko Etxean ateratako argazki honetan, ezkerretik eskuinera, Antonio Lizardi, Patxi Txoperena, Felixito Sanz, Rufino Rekondo, Jose Mari Irigoien, Juan Irigoien eta Miguel Mari Irigoien. Izanen dira hor barrena aunitzez ere zaharragoak.


**SAROBEn okindegia**



**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**BOTXO ostatua**

Tfnoa.: 63 00 52  
Zalain auzoa, BERA



**ABENDUAN**  
**%30KO DESKUENTOAK**  
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA



**KATTU**

**OSTATUA**  
**JATETXEA**

- Karta
- Eguneko menua



Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**

*Errekalde ostatua*

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

**ZALAIN JATETXEA**

**Eguneko menua eta karta**

**Boda eta banketeak ematen dira**

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

## Etxe eskinak garbi edukitzeko bandoa aterako du Udalak

Albintea ere eginkizun horretan arituko da astelehen eta larunbat goizetan

MIRARI eta MARTA

Norberak bere etxe eskinak garbi edukitzeko kontu berezia izatea eskatuko duen bandoa aterako du Udalak, azken plenoan hartutako erabakiaren arabera. Herriko karrika bazterrak utzixeak zeudela eta hartu da bando hau plazaratzeko akordioa. Honetaz gain, albintea ere arituko da astelehen eta larunbat goizetan lan honetan eta honi laguntzea eskatzen da aipaturiko bandoan.

□ **Azienden** deklarazioa egiteko egunak abenduaren 15, 16 eta 17an.

□ **Nafarroako** Gobernua berriki ateri duen dekretu baten arabera, lau hi-



Herriko karrika xokoak garbi mantentzea komeni da

labete baino gehiagoko zakur guziek identifikatu behar dira. Honetarako jabeek beren zakur kopuruaren berri eman beharko dute

Herriko Etxean.

□ **Donezteben** ospatutako Nafarroako Haurkantu txapelketan Arantzako lau taldek hartu zuten par-

te, baina bakar bat ere ez zen Iruñian hilaren 13an eginen den finalerako klasifikatu.

□ **Ehizturiei** bertze 10 urtetarako (2002.a bitarte) berriro zaie herriko kotoa.

□ **Arangurengo** Udalarekiko elkartasuna adierazten zuen mozioa ahobatez onartu zuen Udalak. Arangurengo hainbat herritar juizioan sartu dituzte bertan egin nahi den zaborteziaren kontra protestatzeagatik zigor ikaragarriak eskatuz.

□ **Turismoa** bultzatzeko Bertizko Konsortzioan sartuko da Arantzako Udala, dagokion diru kopurua (166.350 pzta.) ordainduz.

GRUPO  ZURICH


ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ETXEGARAI  
BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA



ERAKUSKETA:  
BEREAU ETXEA  
LESAKA NAFARROA  
Telf: (948) 637266

**BORTZIRI**

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO ALTZARIAK

**ORDOKI**

**ALTZARIAK**

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik

SARA

## Hirurogoi heldu biltzen dira dantza ikastaroan

Inguruko herrietarik ere hainbat jende elgarretarutzen da

JACQUELINE eta MIXEL

*ttipi-ttapan* jadanik aipatuak izan dira ikasgai horiek eta astearte eta ortziraletan iragaiten direla badakizue. Beraz bi hila-bete pasatu dira eta gure ustez ordu da jakitea nola iragaiten diren helduentzako antolatu ikasgaiak: hastetik azpimarratu behar dugu hirurogoi bat helduk parte hartzen dutela eta horietatik berrogoi aurtan hasiak dira. Ez dezagun ahantz ere hamar bat gizonek segitzen dituztela ikastaro hauek. Arrakasta gaitza dute ikasgai hauek eta inguruko herrietarik ere jiten dira eta modu hortan elgarretarutzen Sara, Zugarramurdi eta Urdazubiko



jende andana bat.

**Zer ikasten dute?**

Banaz bertze mutxikoak, Lantzeko ihauteria, fandangoak eta Larrain dantza. Horiek guziak ez ditazke direnak ez balitz borondate eta ja-

kitedun gazte andana bat. Hor gorai patu nahi nuzke erakasleak: Solange Mariluz, Sophie Elizalde, Sylvie Goyetche, Odile Ayez. Hauen lana ez da huntan gelditzen: Zazpiak Bat taldea harremanetan dago

Lesakako Tantarumairu dantza taldearekin eta hila-betean bi aldiz Lesakatik erakasleak Sararat etortzen dira dantza batzuen erakasterat eta Sarako erakasleek gauza bera egiten dute Lesakarat joanez.

Iparraldeko dantzak Hegoaldean ezagutarazi nahi dituzte horrela eta bergisan hangoak hemen.

### Santa Katalinako oturuntza

Ohiturari segituz ospatu da azaroaren 21 eta 22an Santa Katalinako tripotx jatea. Ihalarreko auzoko bestak ziren denboran egun hortan eta urte guziz Baratzartea jatetxean biltzen da jende ainitz Santa Katalina inguruko aste buruan.



### AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tf: 450028 - DONEZTEBE

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO BIDAIK**

BIDAI AGENTZIA  
G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAKALEA, 5  
☎ 943 - 615177  
☎ 943 - 619489  
FAX 943 - 619517  
20.300 IRUIN

## MENDI HOTELA



DONAMARIATIKO BERTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

# Olentzerotarako entsaioak larunbat eguerditan egiten dira

Hirurogeitamar-larogei haurrek parte hartzen dute

IOSUNE eta IXABEL

Olentzero egunerako entsaioak egiten hasiak dira larunbatero eguerdiko 12etan Josune eta Ainhoa trikitilariak duten lokalean. Aurtengoan, olentzero kantak entsaiatu eta bi olentzero egiteko asmoa dute, bat ttikientzat eta bertzea haundientzat. Momentuz, hirurogeitamar-larogei haur inguru biltzen dira bertan, baina parte hartu nahi duen guztiak badaki non aurkitu talde hau. Aipatu behar da baita, olentzero egunean trikitixa eta panderetaz lagunduta aterako direla herriko karrrika eta baserrietan barrena.



Olentzero eguna ilusioz espero dute herriko gaztetxoek

Arg. JOSUNE

## Ebasketa eskolan

Duela bi aste inguru ebasketa izan zen herriko eskolan. Leihotik sartu on-

doren, radio-cassetea eta idazmakina eraman zuten. Bi sunbildar gaztek gertatutakoa ikusi eta atzetik se-

gitu ondoren idazmakina bota zuten. Guardiazibila abisatu arren oraindik ez dago lapurren berririk.



**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**

**BELARRA** Kafetegia

*Plater kombinatuak*

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

**12**

Ostatua

Amezti 12, Tfnoa: 450153, DONEZTEBE

**BEINTZAKO OSTATUA**

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA-LABAIEN

**ASKIN OSTATUA**

**Bokadillo eta Plater kombinatuak**

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

**IBARROLA**

**HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA**

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

*Mari Cruz*

**LENTZERIA**

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

**DONEZTEBE**

**Bertsolariak eta artesauak Santa Luzia egunean**

Donezteben foruak eskuratu zitueneko 800. urteurrena ere ospatuko da

**TXEMA ALDABE**

Santa Luzia bezperan, hilaren 12an, Xabier Ezkietak eta J. Monteanok hitzaldi bana emanen dute Herriko Etxean arratseko 8,30etan, Doneztebentzat foruak zer suposatu zuten eta garai hartan herrian nola bizi ziren argituz. Ekitaldi hau, Doneztebek foruak eskuratu zitueneko 800. urteurrena ospatzeko antolatuta da.

Biharamonean, Santa Luzia egunean, txistulariak eta meza izanen dira goizetik. Eguerdian, Euskara zerbitzuak antolatuta bertso saioa izanen da eliz atarian. Bertan, Jokin Soroza-bal, Manolo Arozena, Millan Telleria eta Mikel Mendizabal arituko dira eta Bittor Elizagoien izanen da gai-jartzaile. Arratseko 7,30etatik gaueko 10,30ak arte dantzaldia izanen da eliz atarian.



Lizaso erremontelariak irabaziz debutatu du profesionaletan

**Iñaki Lizaso, erremontelari profesional berria**

Azaroaren 27an jokatu zuen lehenbiziko aldiz erremonte profesionalean 18 urteko Iñaki Lizaso doneztebarrak. Galarretan jokaturako partiduan El Cafe ostatuko mutil honek eta Iñigok 35 eta 32 irabazi zuten Zubeldia II eta Sotori. Kritikoen arabera gorai-patu behar da Lizasok duen ausardia eta kemena.



Usorik ez da pasatu baina ehiztariak ez dira geldirik egon

□ **Haur kanta** lehiaketaren finalean izanen dira Miren Martikorena eta Estibalitz Gastesi herritarrak. Gaztetxo mailan arituko da bikote hau abenduaren 13an Gaiarren, Nafarroako 23 partehartzailerekin batera. Beren kanta: "Noiz arte?".

Doneztebeko ikastetxetik «Elur lore» eta «Xarma» taldeek ez zuten suerte bera izan eta ez ziren finalera pasatu.

□ **Udal langilegoa** euskalduntzeko zera proposatu dio Udalak Euskara Zerbitzuari: udal langilea ordezkatu behar duena langile honen barnetegiak irauten duen baino denbora luzeagoz kontratatzea ordezkoa. Nolabait aintzinetik jakin eta ikasi dezan berak egin behar duen lanen berri. Baita ere proposatzen dio barnetegi guttiago egin eta hauek iraupen luzeago izatea.

*Zintaren* Arropa polita  
Udazken eta negurako  
San Migel auzoa 27,  
45 08 83 - DONEZTEBE

ARROPAK

*Beatriz*  
**ILEAPAINDEGIA**  
San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ilepaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

**SANTAMARIA**  
Jatetxea  
Especialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneroko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

**HONORIO TABERNA**  
EMAKUME, GIZONEZKO ETA HAUR ARROPEN BOUTIQUE  
Merkatariak 29, Tfnoa: 45 01 09 DONEZTEBE



## Kultur Egunak antolatu dira urtarrilaren 2tik 5era

Bertzalde, 130 pertsona inguru bildu ziren bertso afarian


IBAN ISASI

Urte berriari hasiera eman bidenabar, hainbat kultur aktibitate antolatzen ari dira urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5erako. Xehetasun guziak orain bertan ematerik ez badago ere, diapositibak, hitzaldia, bertso saioa, kantaldia Anje Duhalderekin, umeentzako aktibitateak, rock kontzertua

gazteendako eta erakusketak izanen dira bertzeak bertze.

### Bertso afari arrakastatsua

120-130 pertsona bildu ziren Iturengo Herriko Etxeko goian azaroaren 28an. Afalondoan Lizaso, Euskitze, Egaña eta Murua aritu ziren bertsoan eta hauen ondotik trikitalariak goizaldearte.



## ZUBIETA

## Arbolaren alde eta "kontra"

Palmondo landatze baten istorioa

JUAINAS

Zubietan, ohitura zaharrek, tradizioak, indar berezia dute; sasoiak bihurturik... herritarren indarrak bat egiteko motiboak izaten dira. Oraingoan estalpe parian "palmito" galanta bati tokatu zaio.

Istorioak urteren bat izanen du, iaz Udalak bere terrenoa -Sekretarioaren etxeko baratzean- zuen palmera bat erosteko mila duroko eskeintza jaso zuenean. Oiartzuar lagun baten jakinduriak erabiliz -Iñigo Leibar, hain zuzen ere- eskeintza miserabilia zela jakin zuen Udalak, eta saldu beharrean landatzea erabaki zen. Orain ekiteari tokatu zaio, eta Patzikuren zuzen-

daritzapean egin zen "morbida" mundu guztiak ezagutzen duen traktoren iraulketa eta guzi... ondarean, ez "pluma" eta ez bestelako: "fiestetako arbolaren altxatzearen entsaioa", Mikel Berrio ostalariaren argazkietan ikus daiteken bezala. Hauxe da "arbolaren alde" dugun jarrera...

"Kontra" kora pasatuz, bromarako har dezakegun ikarea, Isabeleko Manuel txok izan zuen akzidentea. Aditu dugu -eta benetan nola izan zen ikasi ez- mototik eroriz arbol baten kontra buruarekin jo zuela. Larriak pasa ditu; Domintxinek topatu arte denbora puska zeraman odol arraka, ospitalean, UVian egonez, eta



orain, seguraski, pistetako harri eta arbolen kontra bo-

tako dituen madarikazioak direla: senda dadila agudo!

GOIZUETA

**Txerri-hiltzeari buruzko argitasunak kaleratu dira**

Puskak asteartero bilduko dira Udaletxean 8etatik 12etara

ESTEBAN AROZENA

Elikaduren edo janarien ohiturak azken urteotan asko aldatu badira ere, gure herriko familia askorentzat txerria oraindik oinarrizko edo gutxienez garrantzizko generoa dela ukaezina da.

Hori kontutan harturik, argitasun batzuk kaleratu dira, txerri hiltzetaren ondoren eman behar diren pausuak azalduz hain zuzen. Lehen lehenik esan, puskek udaletxean bilduko direla asteartero 8etatik 12etara, mingaina, saiheitsaren tarteko haragia, diafragma eta matalezurraren erakusgaiak eraman behar direlarik bertara.

Horrekin batera, paper bat bete beharko da ondo-



*Urtero bezala aurten ere Joxemarik hamaika txerri hil beharko du*

rengo datu hauekin: izena, helbidea edo telefonoa, basurdea edo txerria den, eta txerria bada bere adina jarritz. Txerriekin eta basurdeekin hain lotua dagoen trikinosis gaitza gizonengan duen eragina azalduz bukatzen da

aipaturiko papera.

**Korrespontsal berriak Egin-en**

Herrian gehien banatzen den egunkariak, Eginek, korrespontsal berriak ditu: Iñigo Elizegi, Mari Jose Aizpuru eta Iñaki Etxegiak

osatzen duten hirukotea. Periodiko horretan zerbait argitaratzea nahi duenak, aipaturiko hauei esatea nahiko izanzen du.

**San Andres eguna**

Azaroaren 30a, San andres eguna, Goizuetako eskoletan, izena ematen dioen bertsolariaren (Andres Narbarte "Xalto") omenez hainbat ekitaldi burutu zen.

Eg uerdi partean, Xabier Eguzkitzek eta Jon Sarasuak ikasleekin hizketalditxo bat izan zuten, bertsolariaren inguruko hainbat gora behera azalduz. Bazkal ondoren, berriz, bertso saio eder-rra eskeini zien bi bertsolari bikain hauek eskoletako jangelan bildutako haur eta helduei.

ERATSUN

**Hau da behia hau!**

L.M. RETEGI

Argazkian ikusten duzuen behia, duela bi urte erosi zuen Sebastianek Elizondoko Ferietan. Bere lehen umea (argazkian ikusten den hiru umeetatik haundiena, eskuinean), erosi eta berehala egin zuen. Gero 1991ko urriaren 11an beste bi egin zituen, baina hauek ez dira argazkian ageri, salduak bait daude. Aurten, joan den irailaren

14ean beste bi ume egin zituen eta hoiak dira argazkiko bi txikienak.

Ikusi duzuen guzi hau sekulako marka da, kontuak ateriz gero 22 hilabetetan 5 ume egin baititu. Bere lehen umea ere, argazkian ageri dena, umatzeko dago. Eta hau ez da behi honen meritu bakarra, zezena (hau ere famatua) Itxinikeakoa baita.

Norbaitek hurbilagotik ikusi nahi baditu, Matenera jo beza!



*22 hilabetetan bost ume egin ditu Sebastianen behiak*

## Azkenean egia izan zen, Joxe eta Maritxu ezkondu ziren



*Udazkenean giro ederrez  
zuek hartuz aitzakitzat  
ezkontzan ginen herritar anitz  
ospaketa hartuz aintzat  
Joxe Maritxu biko aparta  
elkartu zaituzte apaizak  
hango soinu eta dantzak  
ahaztuz norberaren gaitzak (Bis)  
azaroaren hogeitazortzi  
har zazue ahaz gaitzat  
adinik ez du sustrai oneko  
maitasunaren zuhaitzak (Bis)*  
Lierni

*Bazkarian 64 lagun izan ziren eta Oialdeko komedo-  
rea bete baldin bazuten ere, jende asko falta zen.  
Leitzan 65tik gorakoak 350 bait dira. Ia hurrengoan  
gehiago zareten.*

JOSEBA AZPIROZ

☐ **Azaroaren 29an**, igandea, Leitzako jubilatuek elkarrekin egoteko aukera izan zuten, bazkari eder bat aitzakitzat zutela. Antolatzailerak lortu zuten bazkal ondorenerako Nafarroako Aurrezki Kutxak musika taldea jartzea. Ongi eskertu zen musika gainera, nahiko dantza egin bait zuten.

☐ **Udalak** salgai jarri ditu Festetan grabatutako bideoa eta portzelanaz egindako Leitzako Harmarria edo eskudoa (bere marko eta guzti). Bideoak 2.500pzta. balio ditu eta eta Harmarriak 10.000pzta. 30 baino gehiago eskatzen badira. Bestela prezioa bikoiztu ere egiten da. Ikusi nahi izanez gero, Udaletxeko bulegoetara jo.

☐ **Herri** liburutegian bi-deoteka ireki behar dute. Bideo guztiak euskeraz izango dira eta liburuekin

egin daiteken bezala etxera dohainik eraman ahal izango dira, bi edo hiru egunez.

☐ **Iratxe** Kontsumitzaileran Elkargoa eta Udala akordio batera ailegatu dira. Iratxeok 3 hilabetez, hileko bi aldiz, Leitzara etorririko dira beren zerbitzuak herritarrei eskeintzera.

☐ **Leitzako** Itxas Txoriak taldea eta Berritsu bikotea pasa dira Euskal Kantu Txapelketan Nafarroako finalera, azaroak 29an, igandea, Donezteben egin zen saioan. Finala abenduaren 13an Iruñako Gaiarren izango da eta irabazleak Euskal Herri osoko finalistekin neurtuko dira.

☐ **EGIN** egunkariak antolatutako mus txapleketan 4. gelditu zen Jose Antonio Olaetxea eta Paco Calderonek osatutako Leitzar bikotea. Mendiko bizikleta bana irabazi zuten.



BAZTAN

Abenduaren 20an Junta Generalaren erdia berrituko da

Eguberri aintzineko igandean, bi urtetik behin, herriko alkate eta junteroak aukeratzen dira

JOSEBA IGARABIDE

Tradizioak agintzen duen bezala, eguberri aintzineko igandean eta bi urtetik behin, Junta Generala osatzen duten 32 kideetatik 15 aukeratuko dira. Izan ere, herrietako alkateak (15 guzira) bi urtetik behin berritzen dira, junteroak (lau kuarteletatik bana) lau urtetik behin eta udalbatzako kontzejalei dagokionez, Estatuko Legediak agintzen duenean.


Dena dela, ia-ia azkeneko momenturarte ez dira ezagutuko zein izanen diren hautagai berriak, eta abenduaren 20an herriz herri eginen diren Batzarretan argituko dire azkeneko dudak. Egun horretan goizeko 9etatik arratsaldeko 5etara botuak ematera joateko ordua izanen da eta orainarteko alkatea eta bi kargodunek egonen dira botuak biltzeko mahaian.

**Zeberiko errekan urtegia?**

Egunkari batetan agertutako informazioaren ondoren, Udalak informazio gehiago eskatu dio Nafarroako Gobernuari.



Azkeneko Batzarreetan Baztandarren erdiak ere ez zuen parte hartu



Aspalditik jakina da, Europatik heldu diren legediek mataderoak berriztatzea eskatzen dutela, hortarako, hilabete honen 31 arteko plazioa jarria zegoelarik. Halere, plazioa ailegatu da eta mataderoen asuntuan ez da deus aintzindu eta Nafarroako Gobernuak plazioa luzatzea espero da. Dena dela Baztango Udalak mataderoaren bideragarritasunari buruzko estudio bat eskatu dio berriki ITGri. Asmoa hiltegia egitea eta Nafarroako Gobernuak dena ordaintzea da. Zona guzirako hiltegi bat ere egin nahi da, teknikoan arabera eskualdean bat nahikoa baita. Bitartean Baztango hiltegia mantentzea eskatzen da. Arg: JOXEMANUEL

**W ttipi-flash**

□ 2.416.122 pezeta eman ditu Nafarroako Gobernuak udal-funtzionarioak euskalduntzeko. Hogeitazazpi langilek parte hartuko dute 1992-93 ikastaroan.

□ Erratzun Camping bat egin nahi da. Herrian bertan izanen da eta jadanik lizentziak eskatuak dira.

□ Iriarte jauregia (aduan zaharra) berritu egin behar dute Erratzun.

□ Koralaen plazako saneamendu sarea egiteko baimenik ez dio eman Nafarroako Gobernuak Udalari. Udalak erabaki hau berriz aztertzea eskatu dio Gobernuari.

□ Ezpeletako Udalak fazerietako konbenioaren berrikuntzari buruz solasteko deitu du Baztangoa. Nafarroako Gobernuak delegatuak eta albaitariak bertan izatea eskatzen dute.

□ Zailtasun haundiak ditu Mendi komisioko euri-teak eragindako kalteak neurtzeko. Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu zaio ebaluaketa hori egiteko.

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**Eguberriak erostetengatik opari batendako txartelak**

**KASINO OSTATUA**

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

## Basaburua-Baztan Kirol elkarteak sortzea erabaki da

Azaroaren 28an egindako bileran diru kontuak ere argitu zituen herri kirol taldeak

PABLO MENDIBURU

Azaroaren 28an Herri Kirol Taldeko partaideek bilera bat egin zuten Anizko Mendiarte Elkartearen aurteko kontuan eta taldearen etorkizuna argitzeko. Aurren, nahiz eta materiala aunitz erosi, arpanak etabar, diru pixka bat sobratu zaie.

Bertzalde, hurrengo denboraldiari begira, Basaburua-Baztan Kirol Elkarteak sortzea erabaki zen. Elkarte honetako partaideedo sozio izateko 500 pezeta ordaindu behar da eta hemendik animatzen zaituztegu sozio egin zaitezten Herri Kiroleko norbaiti izena emanaz.

Kirol kontuekin segituz, aipatu baita hemengo neska-mutilak sokatiran entrenatzen ari direla, oraingoan, Euskadiko Txapelketan jokatzeko.

### Moldaketak

Azken egun hauetan konponketa batzu egin dira Zigan eta Berroetan. Zigan Auzkue auzoan dagoen San Markos ermitako teilatua konpondu dute. Horretaz gain, auzo horretako bideetan ere moldaketak egin dira, leku batzutan ormigoia eta bertzetan zaborra bota dutelarik. Berroetan berriz, herriko plaza moldatu behar dute. Lanean hasiak dira dagoeneko eta losa antzeko material batekin estaltzea da helburua.



Sekulan baino indartsuago ari dira Herri Kirolekoak

PABLO

### Emakumezkoen mus txapelketa eta Baztango eskupilota txapelketa jokatzen ari

Almandotzen joan den asteburuan hasi zen emakumezkoen mus Txapelketa. Emakume aunitzek parte hartzen dute eta azkenean afaria egingen dute. Aste-

burutan Anizen Baztango Eskupilotako XI. Txapelketa jokatzen da. Partiduak goizean izaten dira eta denbora txarra eginez gero, Almandotzen jokatuko dira.



**GESPAM, S.L.**

Mendinueta 12 • ELIZONDO  
Tfnoa eta Faxa: 45 21 92

• **GESTORIA ADMINISTRATIBOA**

• **ASEGUROAK:**

GAN – AEGON – AGF

• **KONTSEJUAK:**

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontuetan

**Zerbitzu integrala enpresarientzat**  
**Deitu konpromisorik gabe!!**

*Beatriz Lurrindenda*

Garantia osoko produktuak  
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikulak

\*\*\*\*\*

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan

ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

ZUGARRAMURDI

80 lagunek parte hartu zuten "Egun Antimilitaristan"

Hamazazpi gaztek gose-greba burutu zuten euskal presoekin elkartzuz

KORO eta MARGARI

Aipatu ginuen bezala, Azaroaren 27an "Egun Antimilitarista" ospatu zen. Lautanogei pertsonak parte hartu zuten hitzaldi eta jaialdian eta besta giro onean gan zen.

Bainan beti bezala, zerbaite okertu zen: iduri dueenez gau hortan komun publikoetako bi grifo hautsiak agertu ziren. Normala denez ez da jakin nor izan den, bainan garbi aski dago gaxtakeri hau egin duen pertsonak besta huni fabore txarra egin diola, jakin gabe edo jakinaren gainean.

Hala dela eta gazteek eta antolatzaileek adierazi nahi



dute beren haserrea gertakizun hunekin.

Gose greba

Bertze aldetik, azaroaren 21 eta 22an Zugarramurdiko

eskoletan hamazazpi lagunek gose greba egin zuten Canariaseko "Salto del Negro" kartzelan gose greban dauden euskal presoekin

elkartasuna agertzeko, eta batez ere herri huntako semea den Fernando Arburuari animo pixka bat bidali nahian.

OSKORRI  
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA



CERVANTES  
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

MENDI  
OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580338  
ELIZONDO



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO  
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure  
karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN  
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK  
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

BAZTAN  
FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA  
SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373

Esquisarri

jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013  
ELIZONDO

## Gasnategien sasoia abiatua da honez gero

Urte Xaharreko afaria bertzalde, Indiano Baitan eginen dute gazteek



Artaldeak ekarriak dituzte menditik

ALIZIA OLAIZOLA

Tenoreak agintzen duen bezala, artzainek ekarriak dituzte beren artaldeak menditik. Etxelekuko gasnategian, errate baterako, orain hasiko dira ardi gasnak egiten. Behi gasnak ere

egiten dituzte eta diotenez, oraindik tira normala omen dute gasna hauek.

Bertze gai batera pasatuz, hurbiltzen ari dira Gabonak eta aurten herriko gazteek urte xaharreko afaria Indiano-baitan egin be-



Etxelekuko gasnategian orain hasiko dira gasna egiten

har dute. Izenemaiteko epea abenduaren 20an finituko da. Ondotik dantzaldia izanen da.

### Pezetaren debaluazioa

Dantxarineako bentetan

frantsesak ibiltzen dire gehien eta edozein gauza erosterakoan, orain lehen baino merkeago izanen dute, pezeta jautsi delako. Guretzat ordea makurrago Frantziara joaten bagara zerbait erosterat.

**ARLA**

**ARDOTEGIA**

Ardo botilatua  
eta botilatu gabea

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66  
ELIZONDO

**ttipi-ttapa**

HAMABOSTEKARIA

5.300 HARPIDEDUN  
18.500 IRAKURLE

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barranean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.



**JATETXEA**

Tfnoa.: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galarza**



Ezkontzetako  
erreportaiak  
argazkiak eta  
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40  
ELIZONDO

Eta orain, zure  
koloretako argazkiak  
**ORDU BATEZ**  
**ERREBELATUAK**  
ditugu

## EZKONTZAK

**Eusebio Mitxelena Bazterrika** eta **M<sup>a</sup> Dolores Larralde Bengoetxea**, Sunbilla eta Lesakakoa, azaroaren 22an.

**Fermin Maritorea Larralde** eta **Elsa Maria Tapia Legaria**, Bera eta Iruñeakoa, azaroaren 7an.

**Jose Antonio Camino Agerrebere** eta **M<sup>a</sup> Concepcion Iñarrea Rekarte**, Amaiur eta Erratzukoa, azaroaren 21ean.

**Iñaki Gonzalez Goikoetxea** eta **Mari Loli Sein Argarate**, Hondarribia eta Igantzikoa, azaroaren 16an.

**Didier Alzuri** eta **Francine Errandonea**, Ahetze eta Sarakoa, azaroaren 20an.

**Juan M<sup>a</sup> Zugarramurdi** eta **M<sup>a</sup> Isabel Elizalde**, Goizuetakoak, azaroaren 21ean.

**Jose Joakin Sestorain Larrea** eta **M<sup>a</sup> Josefa Otegi Etxebeste**, Leitzakoak, azaroak 28an.

## JAIOTZAK

**Leire Zia Danboriena**, Berakoa, azaroaren 11an.

**Clara Zia Danboriena**, Berakoa, azaroaren 11an.

**Julen Baleztena Rudi**, Berakoa, azaroaren 16an.

**Carlos Gonzalez Zamora**, Berakoa, azaroaren 23an.

**Amaia Jaurena Etulain**, Arizkungoa, azaroaren 16an.

**Mikel Apezetxe Santxotena**, Erratzukoa, azaroaren 4an.

**Iraitz Otxandorena Barrenetxe**, Elizondokoa, azaroaren 20an.

**Ioar Tainta Noble**, Lesakan, azaroaren 12an.

**Andoni Taberna Telletxea**, Igantzikoa, azaroaren 16an.

**Fabrice Duperou**, Sarakoa, azaroaren 10ean.

**M<sup>a</sup> Carmen Monedero Arriola**, Narbartekoa, azaroaren 25ean.

## HERIOTZAK

**Bienbenido Iribarren Arbizu**, Beran, irailaren 14ean, 90 urte.

**Sor Maria Beloki Alustiza**, Beran, urriaren 2an, 87 urte.

**Magdalena Iriarte Beumba**, Beran, urriaren 5ean, 85 urte.

**M<sup>a</sup> Teresa Aranburu Irazoki**, Beran, urriaren 12an.

**Jose Berasategi Aranburu**, Beran, urriaren 12an, 65 urte.

**Martin Iñarga Jorajuria**, Beran, urriaren 16an, 57 urte.

**Pedro M<sup>a</sup> Zozia Txoperena**, Beran, urriaren 20an, 74 urte.

**Jose Manuel Zubieta Telletxea**, Beran, urriaren 22an, 79 urte.

**Javier Iraizoz Oiartzun**, Beran, urriaren 29an, 82 urte.

**Jose Martin Telletxea Urtxegi**, Beran, azaroaren 1ean, 63 urte.

**Manuel Errandonea Irazoki**, Beran, azaroaren 18an, 82 urte.

**M<sup>a</sup> Fermina Etxeberria Elizetxe**, Elbeten, azaroaren 20an, 88 urte.

**Claude Lyaet**, Saran, azaroaren 20an, 53 urte.

**Mathieu Sallaberrieta**, Saran, azaroaren 20an, 87 urte.

**Bautista Larraburu Gaztanbide**, Donamarian, azaroak 20, 75 urte.

**Magdalena Etxeberria Goñi**, Narbarten, urriaren 27an, 93 urte.

## J. M. ANDUEZA IRIARTE

### Instalazio elektrikoak

#### ☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*

- Mangerak
- Extintoreak
- Ateak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...

#### ☛ *Alarmak: Suarenak, lapurretarenak...*

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**



ESTETIKA ● SOLARIUM

**GIMNASILEKUA**

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - **BERA**



## Bortziriak Futbol Taldea: Futbola emakumezkoen kirola denean

*Bi talde dituzte, bata Gipuzkoako ligan eta hamabi urtetik behitikoak Nafarroakoan*



Bortziriak futbol taldea laugarren postuan dago Gipuzkoako ligan

AITOR

### BORTZIRIAK F.T.

#### ATEZAINAK

Gorane Artieda (Bera)  
Silvia Ibarra (Bera)

#### DEFENTSAK

Eduarne Telletxea (Bera)  
Maider Gorria (Bera)  
Amaia Larralde (Lesaka)  
Ainhoa Irazoki (Bera)  
Mirian Erkizia (Bera)

#### ERDILARIAK

Juana Aleman (Lesaka)  
Gurutze Villanueva (Bera)  
Estitxu Fernandez (Lesaka)  
Amaia Bikuña (Bera)  
Maite Iturralde (Bera)  
Mirentxu Garcia de Dios (Bera)

#### AURRELARIAK

Aitziber Gutierrez (Bera)  
Itsaso Villanueva (Bera)  
Mirella Martinez (Bera)

Aitor AROZENA

Bortziriak nesken futbol taldea iazko denboraldian sortu zen, futbito taldea desagertutakoan utzitako hutsunea betez. Gaur egun, futbito talde hartatik neska gutti gelditzen dira futboleant, hiruzpalau "beterana" ezik 14-15 urte bait dituzte lehen ekipoan ari diren emakume gehienak. Nagusiak Gipuzkoako ligan jokatzen dute eta iaz nahiko motel aritu ondoren, aurten ongi dabilta, laugarren eta bortzgarren postuen artean. Bertze taldea, hamabi urtetik behitiko jokalariez osatua, Nafarroako ligan jokatzen du Nafarroako Jolas Kirolen ekitaldien barnean.

Neska pila ederra ari dira, beraz, futboleant; nagusietan hamasei biltzen dira eta ttikietan berriz, hogeit bat neska. Gehienak beratarrak badira ere, lesakar batzu ere badaude. Entrenamenduak, Beran egiten dituzte, ekipo bakoitzak astean bitan.



AITOR

## Joxeluis Alzugaraik 'Zikiro': «Neskek mutilak baino elastizidade gehiago dute»

Seigarren urtea du Joxeluis Alzugaraik neska futbolariak entrenatzen. Bi urte eman zituen Beti Gazte taldean, bertze bi Añorgan (Estatuko liga hainbat aldiz irabazi duen taldea) eta hau bigarren denboraldia du Bortziriak taldean. Bere ustez, neskek mutilen sasoia, indarra eta belozidadea ez dute, baina "berez elastizidade gehiago dute, eta ttikietatik hartuz gero teknika ere ongi ikasten dute".

Bortzirietan emakumeen futbola ongi sartu dela dio eta "gero eta jende gehiago joaten da nesken partiduak ikustera". Hala ere, laguntza gehiagoren beharra ikusten du: "Astean lau entrenamendu egiten ditugu -bi ttikiekin eta bi haundiekin- eta asteburutan, igual goizean Iruñean aritu eta arratsaldean Arrasatera joatea tokatzen zaigu". Taldearen gaztetasuna eta etozkizuna azpimarratzen du Joxe Luisek.

## Eskualdean 250.000 kilo kiwi biltzea espero da

*Kiwi Baztan izenarekin salduko da kalitatea eskaini nahi duen produktu hau*

1985a baino lehenago norbaitek Baztan kiwia erein eta ontzeko leku ezin hobea zela erran balu inork guttik sinetsiko zuen, batez ere inork ez zuelako ezagutzen fruitu hori.

Berez, Ozeania edo Zelanda Berria bezalako leku exotikoetatik datorren jaki goxo hau pixkanaka pixkanaka ezaguna egin da eta gaur egun edozein dendetan aurki daiteke, nahiz eta kontsumitzen den gehiengoa, hirutik bi, kanpotik ekarritakoa izan.

Eskualdean, Lekarotzen zehazki errateko, kiwia produzitzen duen enpresa garrantzitsua dago, Kiwi Baztan izenekoa. Dena behar bezala baldin badoa, 250.000 kilotako produkzioa espero dute datorren urterako, orain arte, duela zazpi urte hasi zirenetik, izandako garrantzitsuena.



Bederatzi langile fijo daude kiwi Baztanen lanean. Horretaz gain hiru hektareako langile bat pagatzen dute, beharrezko zainketak egin dezaten

**H**ala ere, produkzio guztia ez da Kiwi Baztanen bertan egiten. Lekarotzen, 76.000 kilo bertzerik ez dira bildu, gainontzekoa, Sunbilla, NARBARTE, Doneztebe, Amaiur eta Elizondon egiten delarik, batez ere.

Kalitatearen aldeko apostua egin dute estatuko kiwiak duen fama txarra kendu asmoz. Horregatik, azaroa arte ez dute kiwirik bildu, azukre puntua (% 6a eta 7a bitartean) har zezan. Gainera, Zelanda Berriko teknikoak izatea, ongi iku-

sia dago "mayoristen" aldetik. Saltzerako orduan, Iruñea, Donostia eta Bilbora joaten dira batipat, exportatzeko orduan milioi bat baino gehiagoko produkzioa behar baita. «Kiwi Baztan» izen erregistratuarekin salduko dute aurtengoan.

### Berrikuntza teknikoak

Kalitatearen aldeko apostu honen ondorioz zenbait berrikuntza egin dituzte Lekarotzen. Kamara berezi bat dute, atmosfera kontrolatua duena. Honekin, kiwia saltzeko prezioa hobea izan bitartean itxoin de-

zakete, dena orain—merkeen dagoenean— saldu ordez. Abenduaren erdirako, klasifikadora bat ezartzeko asmoa dute, kiwiak tamainaren arabera sailkatuko dituen; teknologia garestiena, Miguel Mindegia gerenteak onartzen duenez, baina luzera merkeago eta errendimendu gehiago ematen duena. Baita ere beraiek sortutako berrikuntzak sartu dituzte: enborrak zaintzeko sistema propioa, erregatzeaz gain ormarendako baliotutako aspersoreak edo hasieran adarrak kontzeko erabiltzen zuten tablen or-

Miguel Mindegia, Kiwi Baztaneko gerentea:

## «Bidasoaldean milioi t'erdi kilo kiwi produzi daiteke bortz urteren buruan»



► Zergatik kiwia Baztanen?

►► Lurraren kalitatea eta klimarengatik hasi zen. Neozelandesak etorri zirenean, enpresa bat sortu nahian zeuden. Jendea animatu zuten eta poliki-poliki hasi ginen, hasieran 3 hektareakin, esperimento gisara.

► Kiwia produzitzea irtenbidea izan daiteke bertako nekazariendako?

►► Landatzea irtenbidea izan daiteke, baina ez zait gusta-

tzen baserritar batendako alternatiba bezala presentatzea. Frantzian, adibidez, konbinatu egiten dute; behiekin batera, kiwi hektarea

### «Kiwiaren landaketa, baserriko bertze lanekin konbinatzeko produktu egokia da»

bat, ahateak... Hemen ere dibertsifikazioa bilatu behar da. Familia batek aisa eraman dezake hektarea bat, urtean pertsonako 800 lan ordu bertzerik ez du behar.

Gaur egun ez da sobera garestia kiwia produzitzen hastea; hasi ginenean planta bakoitzak 1.100 pzt. balio zuen eta orain 500 pztatan saltzen ditugu. Diputazioak ere subentzio-

ak eta seguroaren erdia pagatzen du. Orain hastea errexago da, eta Bidasoa inguruan milioi bat t'erdiki kilo kiwi produzitu daiteke hemendik bortz urtetara.

dez, egun erabiltzen dituzten kable itxurako sirga merkeagoak produktua hobetzen lagundu dute. Hasierako inbertsioaren ondoren, kiwia merkeago lortzen dute orain.

### Lurraren kalitatea arras inportantea

Nekazari batek kiwia landatzekotan badago, lurrraren kalitatea kontutan hartu behar du: «*buztin gutti eta sakontasun haundia behar du*». Landatu aintzinetik lurra analizatu behar da eta ongarriz zaharra bota (pixa eta horrelakoak ez omen diote onik egiten). Bigarren pausua, planta egokia sartzeari izan litezake, «*bi edo hiru urteko plantak*». Plantazioa berria denean ongarririk egin behar da, Frantzian horretarako arbola azala erabiltzen dute.

Landatu eta bigarrenedo




Kiwi landatzen hasteko, gaur egun duela zazpi urte baino inbertsio txikiagoa behar da, landareak eta teknologia merkeagoa baita

hirugarren urtera hasten da fruitua ematen, baina aintzinetik zenbait lan egin behar dira, adar kimatzea eta lotzea, bertzeak bertze. Baldintza hauek betez gero errentagarritasun haundia omen du kiwiak eta ITGk berriki egindako estudio baten arabera %20ko errendimendua lor dezake (behi kuadra batek, adibidez,

%12koa du, kasurik onenean). Hemendik aintzineraino gainera, Nafarroako gobernuak ormak aseguratuko ditu agroseguroaren bitartez eta kiwia landatzen duten 35 urtetik behitiko nekazariak %56a bitarteko subentzioak eskura ditzazke.

Testua: Aitor AROZENA  
Argazkiak: Karmele TOLOSA



#### BAZTAN

##### LEKAROTZ

6 Hektarea...76.000 kilo

##### ELIZONDO

0'5 Ha..... 13.000 kilo

##### AMAIUR

1'5 Ha.....33.600 kilo

#### NARBARTE

##### NARBARTE

3'2 Ha.....61.000 kilo

#### SUNBILLA

##### SUNBILLA

2'5 Ha.....56.000 kilo

#### DONEZTEBE

##### DONEZTEBE

0'5 Ha.....16.000 kilo

14'2 Ha.....255.600 kilo

## Santiago Ustarroz: «gestio mailan inefikazia haundia dago gaur egun Baztango Udalean»

*Unión Baztanesa-Baztango Elkartearen buruarekin solasean*

Santiago Ustarroz Gracenea 65 urtetako Baztandarra dugu. Bere aita Olitekoa zen eta gaztetan Mugaire-ra ezkondua. Santiago betitik Mugairen bizitua da; bera ere ezkondua eta 3 seme-alaben aita.

1983an Julio Iturralderen kandidaturan presentatu zen lehen aldiz Baztango aiuntamenturako eleksioetan, eta 1987tik 1991ra UPNko parlamentarioa izana da Iruñan. Azkeneko eleksioetan, 1991eko maiatzaren 26an, Union Baztanesa-Baztango Elkar-tea Taldearen zerrenda buru dugu eta bera izan zen alkategairik botatuena, guzira 2.038 botu eta 13 kontzejaletatik 6 UB-BErentzat

eskuratuz. Halere, EA, HB eta PSOEren arteko paktuak, azkeneko zortzi urteotan UBren esku egon den alkatetza EAko Fco. Oiartzabali eman dio.



«Debateetan parte hartzen dugu, baina ez gestio municipalen»

**ttipi-ttapa.** Azkeneko eleksioetan botu gehien bildu zituen alkategaia zara, eta halere, EA, HB eta PSOEren arteko paktuak Patxiku Oiartzabal jarri du alkate-tzan. Nola baloratzen duzu bere lana alkate bezala?

**Santiago USTARROZ.**

Alkate gisa kompetentea dela iduritzen zait, baina bere lanbidea dela eta, ezinezkoa zaio dedikazio haundiagoa eskeintzea alkatetzari. As-tean pare bat ordurekin ezin da aiuntamentuko aferak behar den bezala moldatu. Guk debateetan parte har-

tzen dugu baina ez gestio-an, gure kriterioak ez dire kontutan hartzen. Oposizioa garela jakinik, dialoganteak gara baina ez digu deustarako balio. Gestiorako eskeintzen dugun laguntza ez da ukatzen, baina onartu ere ezta egiten.

**ttipi-ttapa.** *Eta orduan...?*

**S. U.** Ba... akordioak hartzen dire eta gero ez dire betetzen. Gestioa ez da batere efikaza eta mantso funtzionatzen da. Guk, dena dela, ez dugu dezisio inportanteenetan parte hartzerik izaten.

**ttipi-ttapa.** *Zer da aldatu dena aiuntamentuan legislatura honetan?*

**S. U.** Nire ustez lanerako esturktura aldatu egin da. Orain lehen baino aktibitate gutiago dago. Jendeari ematen zaion atenzioa ere murriztagoa da eta ez da lehen UBrekin ematen zen atenzio pertsonala eskeintzen.

**ttipi-ttapa.** *Abenduaren 20an Junta Generala berritzea tokatzen da. Konpetentzia berriak eman behar zaio Juntari edo orain arte bezala utzi?*

**S. U.** Junta Generalak Ordenantzak ematen dizkion konpententziak ditu. Aldaketa txikiren batzuk sartzen ahal dira bainan funtsean, ez naiz aldaketak sartzearen aldekoa. Gainera, aiuntamentuarenak diren konpetentziak emanez gero, bigarren aiuntamentu bat sortuko zen, eta orduan, gestio municipala izigarri mantsotuko zen.

Junta Generalak beti egon beharko du, aiuntamentuko korporatibo, jurado, juntero eta kargodunekin, betitik horrela izan baita.

**ttipi-ttapa.** *Momentu honetan zeindira Baztanek dituen problemarik inportanteenak?*

**S. U.** Inportanteenak bi:



«Alkatetza UBren esku balego, Nafarroako Gobernutik laguntza hobea izanen genuen segurki»

Laminaciones eta nekazariena. Laminaciones-en baitan dago zona honetako jende gehienaren ekonomia, eta badugu esperantza egoera kontutan hartuz, goimailako organismoek gauden lekutik airoso ateratzeko manera bilatuko dutela. Bertzalde, konstziente gara Baztanen eta Bidasoako regata osoan, Catalunyan dauden moduko industria txikiak bultzatu beharko direla; batek frakasatzen badu problema erraxago moldatzen baita horrela. Nekazariak berriz, kupoe-kin eta, egunetik egunera makurrago daude. Maastricht-eko akordioetaz inork ez du informazio seriorik izan

**«Akordioak hartzen dire eta gero ez dire betetzen. Gestioa ez da batere efikaza eta mantso funtzionatzen da»**

eta ganaderoa izan da kalte-tuena.

**ttipi-ttapa.** *Eta turismoarena nola baloratzen duzu?*

**S. U.** Inportantea da, eta Nafarroako Gobernuaren laguntza osoarekin kontaktzen den honetan, aiuntamentuek interes osoa beharko dute jarri konsortzioan. Turismoa rekurtsu bezala ezin da bazterrera utzi, garrantzitsua izaten ahal baita eta konplemento ona izanen zen Belateko tunela eta Irun eta Dantxarineako karretera moldatzea.

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN  
Arg.: Karmele TOLOSA

## Etxebizitzak

• **Mugairen** pisu bat salgai prezio interesgarrian. ☎ 453299.

• **Elizondon** pisu amueblatua salgai. 130 m<sup>2</sup>, 4 logela, 2 bainu eta 2 miradore. ☎ 580267. Eguerdiko 1ak eta 2ak artean.

• **Lesakan** pisu bat salgai. ☎ 637034 / 226747.

## Lana

• **Iruñean** 18 urtetik goitiko neska euskalduna behar da. ☎ 174353 (2-4 eta 8etatik aintzineran).

• **EGA** duen neska batek Beran edo Lesakan haurrak zaintzen edo arratsaldetan Lesakan edo Igantzin euskarazko klaseak ematen lan eginen luke. ☎ 637911 (Eduerne).

• **Neska** batek, Bera, Lesaka edo Etxalarren lan eginen luke. Zaharrak edota haurrak zaintzen esperientzia badut eta euskara ikasten ari naiz. ☎ 635258.

• **22** urtetako emakume batek lan eginen luke ordu batzuk arratsaldez Doneztebe inguruan. ☎ 635150 (goizeko 10-11, Loli).

## Salerosketak

• **Lokal** bat salgai Berako San Esteban 37an. 70 m<sup>2</sup> + 40 m<sup>2</sup> sotanoan. Norbaitek denda edo bulegoa montatzeko nahiko balu, dena prest du. ☎ 630970.

• **Honda** 600 Trail motoa eta kitarrarentzat 100 Wko anplifikadorea salgai. ☎ 630922 (Javier).

• **Trikitixa** salgai, oso egoera onean eta beltz kolorekoa. ☎ 510391 (gauetz).

• **Mota** guztietako pike-teak salgai. ☎ 634107 (9'30eatik aintzineran).

• **Egoera** oneko komedorea eta logela konpletua salgai. ☎ 634151.

• **Intxaur** landare onak salgai Leitzañ, koxkorak eta ederrak ere; metro batetik lau metrotarainokoak. ☎ 510227 (Lontxo).

• **Yamaha** RD 350 motoa salgai, prezio interesgarrian eta egoera ezin hobean. ☎ 630397 (Xatur-eguerdiz)

• **Hogei** ardi gazte salgai. ☎ 514188.

• **Sukaldea** salgai. ☎ 637984.

• **Mendi** bizikleta Torrot markakoa salgai 6.000 pz-

tatan. ☎ 615035.

• **Sukalde** mixtoa salgai, egoera eta modu onean. ☎ 510318.

• **Lada Niva** 4x4 kotxea salgai Erreterian, SS-AK matrikula eta 15.000 kilometro eginak. 750.000 pz-tan. ☎ (943) 529456.

• **Ford** Fiesta 1400 kotxea salgai, 5 urte eta egoera onean. ☎ 637872.

• **Gasolinazko** kotxe teledirigidoa osagai guztiekin erabili gabea, 45.000 pz-tan. ☎ 637872.

## Denetarik

• **Azaroaren 26ean**, SS-2886-AL kotxeari gertatutakoaz zerbait baldin bada-kizu, dei ezazu mesedez 630411 ☎ra.

• **Aleman** klaseak ematen nituzke. Alemaniakoa naiz. ☎ 450769 (Heike).

## Harremanak

• **Leitzako** Maikari: zorionik beroenak zure urtebetetze egunean, nahiz eta berandu xamar izan. Zure alaba eta senideen partez.

• **Sarako** ihiztariari: aurten ere uxoa gaizki heldu omen dira, gauza bera

entzuten dugu han ta hemen; horiek entzun eta baitut segurtamen uso saltsa haundirik ez dugula janen. Saratar bat.

• **Goizuetako** Patziku edo "Pitzuri" zorionak zure urtebetetzean. Pozik egongo zara ezta? Bazkari bat egingo dugu. Zure familiarren partez, batez ere Maite.

• **Elizondoko** Esperia abenduaren 1ean urteak betetzen zituelako zorionak eta bertze aunitz betetzeko bere senarra eta alaben partez.

• **Saldiasako** Estebanen-tzat: bost urte ez dira deus. Zurekin pasatu nahi dut nere bizi osoa. Eta kasu, Berako gauek kenduko dizkizute indarrak eta hotzatuko ipurdia.

• **Leitzako** soinketan eta saskibaloian dabilen Maria-ri bere 10. urtebetetzean. Urte askoz. M eta P.

• **Zorionak** bi Xabi famatuei, bilbotarrari eta irundarrari. Ea noiz gonbidatzen gaituzuen afari eder batera. Zuen "Club de fans".

• **Leitzako** Joxemigel Zabaletari zorionak bere 15. urtebetetzean. Lagun baten partez (ezagutuko nauzu).

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....


HELBIDEA .....

HERRIA ..... Tfnoa: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

# KOLORETAKO ERREGALOAK!!



Hastekoz

## DEBALDE

TELEBISTA BAT edozein

## RENAULT \*

modelo erosteagatik

\* Stock-ean dauden ibilgailuak

Eta gainera

## BALDINTZA

## EZIN HOBEAGOTAN

*Zatoz zurearen bila*



ZURE BEHARREN ARABERAKO  
FINANTZIAZIOA ESKAINTZEN DIZUGU



**RENAULT**  
Sarea

- **Baztan:** P. Garmendia – Elizondo
- **Malerreka:** Talleres Santesteban – Doneztebe
- **Bortziriak:** Semper Anaiak – Bera

EGUBERRI BEZPERAN  
EGUBERRIETAKO SASKIEN ZOZKETA

# BORDATXO

## EKITALDIA

Larunbata, Abenduak 19  
ORKESTA - IKUSKIZUNA - MARIACHIA

# PACO FORMOSO eta PASSADENA ORKESTA

# BORDATXO



DANZALEKUA - DONEZTEBE

RENAULT CLIO KOTXEAREN ZOZKETARAKO TXARTELAK OPARITZEN DIGUTU



# ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak

**ABENDUANESKAINZA  
BEREZIAK MOBLETAN**

*Nahi izanez gero,  
instalazioaz arduratzen gara.  
Eskatu baldintzak*

Juan Arana, 3  
Tfnoa eta faxa:  
(943) 61 17 67

## IRUN

**ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:**

- x MOBLEAK
- x GRIFERIAK
- x MANPARAK
- x AZULEJOAK
- x SANITARIOAK
- x OSAGARRIAK

*Prempuestoak  
Konpromisirik  
gabe*